



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025eko Maiatza

FARMAKOZAINZAKO 2024 URTEKO JARDUERA-TXOSTENAK: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN FARMAKOZAINZAKO ESPAINIAKO SISTEMARENA ETA EUSKADIKO FARMAKOZAINZAKO UNITATEARENA

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPS-REN SEGURTASUN-OHARRA

Haurretan ustekabeko gaindosifikazio-arriskua aho bidezko errisperidonarekin
Finasterida erabiliz tratatutako pazienteek beren buruz beste egiteko duten arriskua minimizatzeko gomendioak

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

ELIKAGAIEN ETA MEDIKAMENTUEN ARTEKO INTERAKZIOEI BURUZKO FITXAK

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC buletin berria: "Sexu-transmisiozko infekzioen tratamendua"
Azttertuko den medikamentu berriaren fitxa: tirzepatida
SEFAPen infografi berria: Zer jakin behar duzu inhalagailuei buruz?
Sarrera berria SEFAPen blogean: "Ojo al dato... ¡Si se prescribe metotrexato!"
Drug and Therapeutics Bulletin – BMJ Journal

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA - BERREZARPENAK

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

PRESBIDEKO TRATAMENDUAK EGUNERATZEA

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

FARMAKOZAINZAKO 2024 URTEKO JARDUERA-TXOSTENAK: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN FARMAKOZAINZAKO ESPAINIAKO SISTEMARENA ETA EUSKADIKO FARMAKOZAINZAKO UNITATEARENA

Giza erabilerarako medikamentuen Farmakozaintzako Espainiako Sistemaren jardura txostena

Giza erabilerarako medikamentuen farmakozaintzako espainiako sistemaren urteko jardura-txostena argitaratu da. Medikamentuen ondorio kaltegarrien susmoen eta txertaketaren ondoren gertatutako eta 2024an jakinarazitako aurkako gertakarien alderdi garrantzitsuenak nabarmentzen ditu. Aldi horretan, Giza Erabilerarako Medikamentuen Farmakozaintzako Espainiako Sistemak ondorio kaltegarrien susmoen 37.944 jakinarazpen erregistratu zituen.

Ondorio kaltegarrien % 49 zuzenean jakinarazi zitzaion Giza Erabilerarako Medikamentuen Farmakozaintzako Espainiako Sistemari, eta gainerakoak gehienbat farmazia-industriaren bidez jakinarazi ziren.

Gehien jakinarazitako ondorio kaltegarrien susmoak **nahasmendu gastrointestinalak**, **larruazalekoak** eta **azalpeko ehunekoak** eta **nerbio-sistemakoak** izan ziren. **Immunoezabatzaileak** (% 14), **proteinkinasaren inhibitzaileak** (% 8), **txerto antibiralak** (% 7) eta **agente antitronbotikoak** (% 7) izan ziren seinale horietan sarrien parte hartu zuten medikamentuak. Txosten osoa kontsultatu nahi izanez gero, hortxe [esteka](#).

2024ko Euskal Autonomia Erkidegoko Farmakozaintza Unitateko Memoria

2024an, medikamentuen albo ondorioen 2.512 kasu jaso dira, osasun-profesionalen (n=2.466) eta herritarren (n=46 kasu) aldetik. 2023. urtearekin alderatuta (n=1.863 kasu) kasuen kopuruak gora egin duela nabari da, eta horrek %34,8ko igoera ekarri du. Gainera, azpimarratu behar da Euskal Autonomia Erkidegoa izan dela, autonomia-erkidego gehienak baino askoz ere biztanle gutxiagorekin, Espainiako Farmakozaintza Sistemaren FEDRA datu-basean albo ondorioen susmoen kasu gehien izan dituen autonomia-erkidegoa 2024an. %13,5eko ekarpena egin dio kargatutako kasu guztiei. Txosten osoa kontsultatu nahi izanez gero, hortxe [esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 AEMPS-REN SEGURTASUN-OHARRA

Haurretan ustekabeko gaindosifikazio-arriskua aho bidezko errisperidonarekin

Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) jakinarazi duenez, haurretan aho bidezko errisperidona soluzioarekin ustekabeko gaindosi-kasuak jakinarazi dira, medikamentuekin batera doazen xiringak edo pipetak interpretatzean akatsak izan direlako.

Jakinarazitako kasu gehienak larriak izan ziren, eta hamartarretan izandako akatsekin lotura zuten; ondorioz, agindutako dosia halako 10 eman zitzaien.

Osasun-langileei gomendatzen zaie jarraibide argiak eman diezazkietela pazienteei eta zaintzaileei dosifikagailuen erabilera egokiari buruz.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 2025eko apirilaren 11n argitaratutako segurtasun-oharra kontsulta daiteke [esteka](#) honetan.

Finasterida erabiliz tratatutako pazienteek beren buruaz beste egiteko duten arriskua minimizatzeko gomendioak

Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) jakinarazi du berretsi egiten dela **finasterida** erabiliz tratatutako pazienteek beren buruaz beste egiteko arriskua dutela, bereziki alopezia androgenikorako erabiltzen dutenek.

1 mg-ko finasterida erabiliz tratatutako pazienteen disfuntzio sexualeko kasuak jakinarazi dira, sintoma depresiboak garatzen lagun dezaketenak, ideia suizida barne.

Dutasteridari dagokionez, eskuragarri dauden datuek ez dute aukera ematen ideia suizidarekiko kausazko loturarik baieztatzeko; hala ere, antzeko ekintza-mekanismoa duenez, 5-alfa reductasa-ren inhibitzaileetan klase-efektu posibletzat jotzen da.

Horregatik, medikamentu horien fitxa teknikoa eta erabilera-orria eguneratu egingo dira informazio berri hori islatzeko. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu 2025eko maiatzaren 9an argitaratutako segurtasun-oharra [esteka](#) honetan.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 ELIKAGAIEN ETA MEDIKAMENTUEN ARTEKO INTERAKZIOEI BURUZKO FITXAK

Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak, Nazioarteko Elikadura Ordezkaritzaren bitartez, printzipio aktiboen edo elikagaiekiko interakzio garrantzitsuak dituzten talde terapeutikoen fitxa-bilduma bat argitaratu du. Argitaratutako azkenengoen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- [Elikagaien eta elikagaien osagai bioaktiboen, gehigarrien eta kutsatzaileen arteko interakzioak.](#)
- [Elikagaien eta antineoplasikoen arteko interakzioak.](#)



Consejo farmacéutico

1. Los alimentos enriquecidos en fitoesteroles disminuyen la absorción de carotenos por lo que se recomienda incrementar el consumo de fruta y verdura para contrarrestar este efecto.

2. Alimentos y complementos alimenticios ricos en flavonoides pueden modificar (aumentar o disminuir, según el caso), la biodisponibilidad de ciertos medicamentos:



Pomelo: inhibe al CYP3A4 por lo que incrementa la concentración plasmática de numerosos fármacos que se metabolizan por esta vía (nifedipino, terfenadina, tacrolimus, triazolam, lovastatina, amiodarona, sertralina, carbamazepina, etc.).



Zumo de naranja y zumo de manzana: disminuyen la biodisponibilidad de levofloxacino y ciprofloxacino.



Soja: sus isoflavonas inhiben al CYP450 pudiendo incrementar los efectos adversos de antipsicóticos (clozapina, haloperidol, olanzapina) y anticoagulantes (warfarina) o inhibiendo la absorción de levotiroxina.



Ajo: tomado como complemento o a modo de extracto puede potenciar el efecto de heparina y anticoagulantes orales y de antivirales (saquinavir, ritonavir). No supone un problema si se toma como condimento en pequeñas cantidades.



Vino: los taninos disminuyen la absorción de ciclosporina.

3. Es importante informar al farmacéutico si se consumen complementos alimenticios para evaluar la necesidad de realizar ajustes.



4. Especial precaución con el uso de plantas medicinales que también son ricas en compuestos bioactivos.



[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

Hauek dira 2025eko maiatzeko berritasunak:

2025eko maiatza		
	Lisdexanfetamina	Elvanse® 30, 50 eta 70 mg, 30 kapsula. Finantzatutako indikazio berria: Haurtzaroan arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduaren (ADHNren) sintomak dituzten helduetan ADHN tratatzeko programa integral baten parte gisa ere aholkatzen da Elvanse®. Fitxa teknikorako esteka.

Indikazioa, finantzaketa edo preskripzio- eta dispensazio-baldintzak zabaltea.

2020ko urtariletik aurrerako berritasunak jasotzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

INFAC buletin berria: “Sexu-transmisiozko infekzioen tratamendua”

INFAC buletin horretan, helduen sexu-transmisiozko infekzio gehienek tratamendu farmakologikoak berrikusi dira, haurdun daudenenak barne, lehen mailako arretaren eremuan, indarrean dauden gida klinikoen gomendioetan oinarrituta eta epidemiologiaren eta gure inguruko sentikortasun antibiotikoen arabera egokituta. Hepatitis, GIB/HIESa eta bestelako infekzioei (pedikulosia edo hazteria) ez zaie heldu.

Dokumentuen estekak:

- [Buletina](#)
- [Aurkezpena](#)

Aztertuko den medikamentu berriaren fitxa: tirzepatida

Eskuragarri dago Medikamentu berrien Euskadiko ebaluazio-batzordeak egindako fitxa, “Aztertuko den medikamentu berria” izeneko, **tirzepatida**ren ingurukoa. Eragin luzeko GIP eta GLP-1 hartzaileen hipogluzemianta agonista da, astero hartzeko larruazalpeko bidetik.

Informazio gehiago lortzeko, dokumentu hauek kontsulta ditzakezu:

- Ebaluazio-fitxa: [esteka](#)
- Publizitatea kritikatzeko liburuxka: [esteka](#)
- Jarrera terapeutikoari buruzko txostena: [esteka](#)

SEFAPen infografia berriak: Zer jakin behar duzu inhalagailuei buruz?

Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Espainiako Sozietateak (SEFAP) infografia berria argitaratu du: **Zer jakin behar duzu inhalagailuei buruz?**

[Pdf formatu interaktiboa](#)

[Aurkezpen interaktiboaren formatua](#)

SEFAPen infografia horiek eta beste batzuk [web-orrian](#) ikus daitezke.

Sarrera berria SEFAPen blogean: “Ojo al dato... ¡Si se prescribe metotrexato!”

SEFAPen Pazientearen Segurtasun Taldeak konparaziozko azterlan bat egin du **metotrexatoaren** astero **aurkezpena** **preskribatzeko akatsen prebalentziaren** inguruan, hainbat autonomia-erkidegoetan dauden preskripzio elektronikoko sistemetan laguntza espezifikoak dauden kontuan hartuta. Azterlana sei autonomia-erkidegotako sei osasun-eremutan egin zen, eta erakutsi du preskripzio elektronikoko laguntzeko tresna erabiltzen ez zuten bi autonomia-erkidegoek preskripzio-akatsen prebalentziaren halako hiru zutela tresna hori bazutenen aldean. Blogeko sarrera berria [esteka](#) honetan dago eskuragarri.

Gogorarazten dizuegu gure autonomia-erkidegoan, 2024ko ekainean, [i-Botika](#) fitxa hau argitaratu zela: “Metotrexatoa, astean behin: astean egun batean bakarrik”; horrez gainera, Presbidek segurtasun-alertaren berri ematen du:

The screenshot shows a web interface for a medical prescription system. At the top, there is a yellow warning banner with a triangle icon and the text: "Segurtasun-alertak. Produktuari lotutako segurtasun-alertak daude. Xehetasun gehiagorako, kontsultatu produktuen fitxa." Below this, there is a blue button labeled "Sortu preskripzioa". Underneath, there is a section titled "Preskripzio – Posologiaren informazioa". This section contains several input fields and buttons: "DOE multzoa" with the value "004912 - METOTREXATO SEMANAL 2,5 MG 24 COMPRIMIDOS", "Edukia" with "24 COMPRIMIDO", "Printzipio aktiboa ATC" with "METOTREXATO", "Dosia" with "1 (COMPRIMIDO) ~ 2,5 (MG)", "Hartzeko bidea" with "ORAL", "Gertakaria" with "Hc", "Mota" with a dropdown menu showing "Akutua", "Tratamenduaren hasiera" with "2025/05/08", "Amaiera" with a dropdown menu, "Egun" with a dropdown menu, and "Os" with a dropdown menu.

BMJ aldizkariaren medikamentuei eta terapeutikari buruzko buletinaren bi argitalpen berri hauek nabarmendu nahi ditugu:

- “[Semaglutide and nonarteritic anterior ischaemic optic neuropathy](#)”, non Medikamentuen Danimarkako Agentziak Sendagaien Europako Agentziari eskatu dion **semaglutidari lotutako neuropatia optiko iskemiko ez arteritikoaren arriskua ebaluatu** dezan, egindako azterlan batean lotura posible bat aurkitu baitzuten (baina ez kausalitatea) semaglutidaren preskripzio berrien eta neuropatia hori izateko arriskuaren igoera txiki baten artean II motako diabeteserako tratamendua duten edota gainpisua/obesitatea duten pazienteetan.
- “[Very small risk of stroke and MI associated with triptans](#)”. Ikerketa batean ikusi zuten **triptanak miokardioko infartua eta istripu zerebrobaskularra izateko arriskuaren igoera oso txiki batekin lotuta** zeudela, batez ere arrisku kardiobaskularreko faktoreak zituzten pazienteen kasuan. Gertakari baskularren kopuru absolutuak txikiak izan ziren, baina zenbatetsi zen arriskua honako hau zela: erabiltzaile berri bat 30.000 bakoitzeko. Gogoan izan behar da triptanak kontraindikaturak daudela gaixotasun arterial koronarioa nahiz zerebrobaskularra duten pertsonentzat.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA - BERREZARPENAK


Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Fentaniloa, prasugrela, ropinirola, urea (13M-C), imipramina

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Buprenorfina, tretinoina, oxibutinina, hidroxiapatita, desmopresina

PRESBIDEn “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbide: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7 PRESBIDEKO TRATAMENDUAK EGUNERATZEA

Pazientearen Segurtasun Taldea modu sistematikoan ari da ikusten **PRESBIDEn tratamenduak ez eguneratzeagatiko akatsekin lotutako gorabeherak, ospitaleratzeen eta kanpo-kontsulten alta emateko unean.**

Medikamentuekin lotutako segurtasun-arazoak saihesteko, ezinbestekoa da paziente bakoitzaren historia farmakoterapeutikoa eguneratuta egotea, aldizka berrikustea eta trantsizio asistentzial bakoitzean medikazioa

bateratzea. Pazienteei, senideei eta/edo zaintzaileei *Tratamendu Aktiboaren Orri* eguneratua beti eman behar zaie, aldaketa hauek egiten direnean:

- Tratamendu berria sartzen denean
- Aldez aurreko tratamendu baten posologia aldatzen denean
- Tratamenduren bat eten egiten denean
- Medikazioaren azterketa egiten denean
- Asistentzia-trantsizioa egon denean (ospitaleko alta, kanpo-kontsultak, larrialdiak, etab.)

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo esteka hauetara:

- Medikamentuaren zentzuzko erabilerari buruzko 4. oharra. [Zeure pazienteen segurtasuna hobetu ezazu, tratamendu aktiboaren orria erabilita](#)
- i-botikaren fitxa: [Tratamendu aktiboaren orria. Asmatu puzzlea osatzen!](#)
- [Tratamendu Aktiboaren Orri](#)ari buruzko bideoa herritarrentzat (gaztelaniaz soilik)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez